



ZEPOZAPO

"Gerra besteen zentzugabekeria da"



markeliñe



**Familia osoari
zuzendutako
ikuskitzuna.**

**Gerraren
zentsugabekeria
eta adiskidetasuna
ardatz dituen
antzezlanak.**



Bi soldaduen sentimendu eta emozio intimoai erreparatzen dien proposamen eszenikoa. Elkarren aurka borrokatu behar dira, baina, pixkanaka, beraien arteko antzekotasunak desberdintasunak baino handiagoak direla ikusiko dute.

Azpimarragarria da eszenaratzearen xumetasuna. Hala ere, ikusle txikiak, batzuetan gertu ditugun eta beste batzuetan urrun ikusten ditugun, gerra ttipi horiei buruzko galderak egin ditzaten adinako sakontasuna du.



Markeliñe

Markeliñen oso gurea eta pertsonala den estiloarekin sortzen ditugu ikuskizunak. Ikusle heldu zein umeen aurrean harridura eragiten duten sortze-lan originalak eta irudimenez josiak proposatzen dituen talde bat bezala definitzen gaituen egiteko modua da gurea.



Gure lanaren funtsa antzezlanen ikuslea "oso gustu oneko mokofina" dela kontuan hartzean datza, antzerkira beste hedabide batzuek, zineak eta telebistak kasu, eskaini ezin diezaiokeenaren bila datorren ikuslea.





Fitxa Artistikoa

Izenburua: **ZEPO ZAPO**

Dramaturgia: **Iñaki Eguiluz**

Zuzendaritza: **Markeliñe**

Interpretazioa: **Itziar Fragua, Nerea Martínez**

Eszenografia: **Concepto Markeliñe**

Argiztapena: **Paco Trujillo**

Jantzitegia: **Marieta Soul**

Atrezzo: **Ruiz Carpinteros, Javi Fernández**

Musika: **Jim Pinchen**

Argazkiak: **Jesús Mari García**

Dossier eta diseinua: **Eneko Etxeandia**

Ekoizpena: **Markeliñe**

Promozioa eta banaketa: **Teresa Sala**

Koordinazioa: **Joserra Martínez**



Sinopsia

Istorio bat gerrako lekuren batean

Zepo izeneko neska landa-ingurune batean bizi da amarekin. Egun batean hegazkinen hots arraroek hurbileko gerra adierazten diete. Zepo, urduri eta haserre, irtetzeko prestatuko da eta bonben azpitik korrika hasiko da, beste soldadu bat balitz bezala, eta amak, bitartean, urruntzen ikusten du, gerraren erdiko tokiren batera.

Zepo frontean dago, toki arriskutsu batean, trenbidearen erdian zain egongo balitz bezala. Halako batean, bera bezalako beste bat agertuko da, bera bezalakoa da, baina desberdina. Beste uniforme bat soinean, beste portaera batzuk, baina bestearekiko beldur, ausardia eta aurreiritzi berak.


Bi soldadu etsai aurrez-aurre. Eta gerra hasiko da.

Agian gerra arraroa izango da. Agian pertsonaiek ez dute tirorik egin beharko. Pertsonaiek jakingo dute hitzek, begiradek eta keinuek armek

baino gehiago zauritu dezaketela. Dena den, biek konpartitzen duten unibertso berezi horretan beraien gatazkek, irudimenezko bidaiek, hurbilketek eta urrunketek aurrera egiten duten bitartean, zerbait bitxia gertatuko da. Bakoitzak sentsazio aitortezin gisa gordetzen duen sekretua dauka: Bestearekin ondo dago. Adiskidetasuna piztu da.

Eta gerrak aurrera jarraitzen badu ere, euren modura gainditu beharko dute. Ausartak izan beharko dira, euren izaera ez galtzeko, ezarritako aurreiritzien gainetik beraien sentimenduak nagusitu daitezzen.

Azkenean, zerutik eroriko den bonba batek erakutsiko die hori egiteko gai direla. Eta euren modura egingo dute, ama batek alaba bat berriro besarka dezan.



**Gerra arraroa da.
Gatazkak aurrera
egin ahala, zerbait
bitxia gertatzen da
soldadu etsaien
artean. Aitortu ezin
duten sentrazio
bat, sekretu bat:
“Zergatik gara
etsaiak elkarrekin
gustura baldin
bagaude?”. Baina
gerra batean ez
dago lagunik.**

ZEPOZAPO

Harremanetarako:

markeline@markeline.com

650 038 731 (Teresa) | 605 700 284 (Joserra)

markeliñe

www.markeline.com